

Celedonia Zenoz Artze
Ezkabarte, Nafarroa (1908)

Aurkibidea

Biografia

Ezkabarteko Anotz herrikoa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Erripakoa (Odieta).

Zintak

EKB-002

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1982-01-01
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

EKB-003

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1981-01-01
- **Iraupena**: 12 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Eultziaren inguruko azalpenak

- **Erref**: EKB-002/001
- **Iraupena**: 0:06:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:06:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Eultzia nola egiten zen. (Gariaren inguruko prozesu osoa)</p>

Transkripzioa

- Inguru honetako herri txiki horietan egiten zen eultzia erraten dena, ezta?
 - Nola?
 - Eultzia.
 - Eul(t)zia?
 - Bai, 'la parva'; nola erraten da euskaraz?
 - Ultzie... ultzie, ultzie.
 - Horixe da, bai; hori ere kontatuko duzu, e?
 - Eje! ori kontatui tao!
 - Kontaturik dago?
 - Klaro! emen ez, beño ultzie? pues e... karri.
 - Baina hasieratik, e? garia nola bildu eta ekartzen zen larrainera eta (...).
 - Pues, ori... pues ultzie...
 - Ia nola egiten zen eultzi guztia, e? prozesu guztia (...)
 - Pues lenao? pues... iten tzen... igitetu! orduen etzen orai bezala...
 makineik, igitātu, baki, igitarieki.
 - Garia, edo...?
 - Garie; eta oloa!... ere bai; igitetu, te gero utzi... aurmenetan. Gero... lotu;
 lotu? paxuetan, eta gero karri idiekin, karröaki. Lennago-lenago, kartzen
 tzuten abrian, abrian, pues... zamukeki; zamukek, paratu abriai, eta... bos
 paxu, kartzen tzuten... biejeran (zuzenduz:) biejiän! bost paxu. Gero, karri
 pues, iru edo lau... o bortz o... aldiz, eta gero ultzie barratu.
 - Barratu...
 - Barratu; barratu te gero... beiekin eta abriakin, ultzitu, ultzitu. Gero,
 xetzen tzenëan? atsaldëan? pues... abriak eta ya... bei...
 - Zaude, zaude pixka batean; eultzitzeko, abereek eta idiek tiratzen zuten
 aparailu batetik, ezta?
 - Estrazie... estrazie. Gero, xetzen tzenian? pues atra abriak eta... idiek, eta
 gero... gañe, kentzen tzaikion aotzai. Agotza gañetik, in monton batzuk,
 eta... eman itxea; ta gero...
 - Eta nola kentzen da?
 - Pues zarriaki, kentzen da gañetik ola, zarriaki, gañetik, eta montondu. Eta

monton aiek, mainerian artu, eta ematen tzuten gizonak, itxera. Ta gero, bildue, bildu... ultzie, bildu, abriaki? pala bat... paratu kuerda batzuki, abriai, eta... kollaron bateki andik, kuerdak, pal artara, ta gero eman, ultzie bildu, agotza, ta gero... gero gie.

- Gero?

- Gie... gie? le decían al grano. Gie? pues, eskuaki... garbitu, larrain guzien, eta, bildu, erre. Zarrian burueki, ematen tzen ure monton batera, eta gero, aizetu! aizetu balin bezen aizia! ezpazen aizia? pues beztze egun beteko uzten tze, biño aizia balin bezen, aizātu. Ta aizetzen tzenëan? aotza alde batera, ta pikorra bertzera? pues gero sartu itxea; pikorra? lenik, ta gero? agotza.

- Ahoztegi...

- Aöztagien!

- Zertarako gordetzen zen ahoztegi? abereei emateko?

(Hortzez ezezka)

- Ahotza zertarako gordetzen zen ahoztegi?

- Aoztegi ematen tzen agotza!

- Zertarako?

- Zertarako? pues beiei mateko ta... abreai mateko, eta... guatzetako ere bai, guatzetako. Gure errien aunditz etzen, etzen biltzen, beño... kartzen giñuen neguen, pues... denbora ona balimezen, oyanetik, ostöa.

- Hoja, ez?

- Ostoa.... guatzetako; espera, quería decir...

- Orbela edo?

- Orbela! orbela, kartzen tzen? ta... itxan? ez balimezen lekuä? pues, mönton bat iten tzen, ta gero? agotza, ez gastatzeko, botatzeko...

anketara? pues botatzen tzen ostöa, ta, ola guardatzen tzen agotza geiago, ezberen? pues, iten bazuen neguä... luzëa? etzen aski aotza.

- Lehenago ez dizut galdetu, eultzia egin aurretik larraina garbitzen ote zuten, larraina...

- Larrañe.

- Bai; garbitzen zen?

- Bai, itxe ontan.

- Nola?

- Altzurreki kendu... belarra; altzur beteki, te gero eskuaki... garbitu.

- Eskuaki?

- Eskuaki garbitu, eta gelditzen tzen, ta gero... muñikātu.

- Muñiketu?

- Bai, ureki, te idien... idiek iten duten...

- Kaka edo...?

- Bai; ta arreki?

- 'Korotza' edo, erraten da? 'gorotza' edo, ez?

- No, no; bota, larrañean t'esku ateki... pastu, igualdu, te gelditzen tzen... ori... garbi-garbie, eta luzituik, garbitzeko eskuaki gero pikorra.

- Nik aditua nuen, bai, leku batzuetan egiten zutela horrelako zerbait.

- Bai.

- Eta gero ez zen gelditzen urrin (usai) edo zera txarrik? ez; haizearekin eta berehala (joango zen)...

- Aiziareki ta ere, gauesko... serenuaki te...

2. Mandemea erosi Tafallan

- **Erref:** EKB-002/002
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aitak mandoa erosi zuen Tafallan. Gaiztoa omen zen; haren inguruko gorabeherak.</p>

Transkripzioa

- Nere aitek erosi zuen... mule bat, Tafallan; de otra forma no se dice: Tafalla.
- Noiz? duela zenbat urte?
- ¡Jesus!...
- Berrogei urte edo?
- ¡Más!... yo llevo aquí, cuarenta y pico de años, aquí, y era... cuando vivía en el pueblo...
- Orduan zuk izanen zenituen hamabost urte edo?
- O obei, ni enaiz oroitzen, ni enaiz oroitzen.
- Eta orduan nola erosi zuen...?
- Erosi zuen aitek eta...
- Hara joanez edo...?
- Arara yoan tzen, arara yoan tzen t'an erosi zuen. Guri... iten tzigun falta!... nere errien, abrei kabe, eztaike... orduen etzaiken egon; orai(k) bada, bada karretera, bero90... orduen etzen karreteraik, eta karri zuen mand ure? (zuzenduz:) ba, mul ure? ta, klaro! ensegida... esportizoaki, ongarri atratzera, eta, maten tzuen alorrera ta... pero ¿cómo le voy a decir yo ahora eso?... ungerrie atratzera? t'egurketara. Ta egurketara yoatzen tzenian? asten tzen nere aite, egurrek paratzen, bastaki et'e... ematen tzuten abrea, eta... egurrek paratzen itxera emateko? eta... atra zen... mul ure gaixtoa!... uztorr ostikoka asten tzen? ta, egurrek eta denak botatzen tzition. Eta... denbora gutiz i... iduki giñuen.
- Zerengatik?
- Zerengatik? pues gaixtoa baitzen? pue(s), beldurre kiñauden? aitei? oro... o neri? o... amai? edo, obrenëan ostiko at man ta... utziko... utziko zigule... illik!... ¡que no puedo hablar!...
- Bai, bai, oso ongi; kosta egiten zaizu pixka bat baina oso ongi...
- Gero saldu giñuen, ya. Gero? después? después...
- Ondoren...
- Ondorean, ondorean? erosi zuen aitek... biorra; bior bat? eta, biorr ure... biorr ore atra zen ona, ta, arre...-ki, ize-, izendu zuen... mando ore, gero. Eta gero, mando arrek? domatu zuen nere aitek eta, arrek serbitzen giñen. Gero? pue(s)... domatu zuten eta ibiltzen tzen ongi, beño... etxe batian il tzaikioten bei bet, eta bei ure saltzera emateko, eman tzuten gure mandoa. Da gure mandoa, in tzion bastak miñe, bizkarrezurrian, eta andik, sartu zaikion kangrena, ta il tzen.
- Gangrenari nola erraten zaio?
- Kangrena, igual.
- Beste izenik ez? haratustela edo...?
- Nik, nik ez, eztut aitu; kangrena.
- Eta zergatik joan zen zure aita Tafallaraino, lehengo mula hura erostera?
- Feria! feria!...
- Baina Tafalla baino hurbilago ere izanen zen feriarik, ez?
- Orduen... etzen ferieik, denbora artan etzen ferieik Tafallan bertzeik.

- Irurtzunen ere ez? Urrotzen ere ez?

- Abriak saltzeko... zen, orduen, Tafalla, ta yoan tzen Tafallara.

- Eta nolaz joan zen Tafallaraino, trenez edo? ez dakizu, eta nola ekarri zuen ere, ez duzu jakin...

- Karri? pues...

- Oinez?

- Oñez! claro! karri oñez; egun bet, bi egun o... nik eztakit zenbat e kosta zaikion, pero karri, oñez; eeh! orduen etzen orai bezala, kamionik eta... emateko ta, kartzeko.

- Eta nongoa izanen zen mula hura?

- Ah! eztakit, nik eztakit nungoa zen.

- Orduan aitari irudituko zitzaion ona zela...

- Ona zela! klaro! ya... an ere erran tzioten ona zela, te... gustetu zaikion? ta zen gaztia, beño, ola. Zer os-, zor ostikoak botatzen tzituen!... buuuu!!

- Eta ez dakizu, hemendik, Anoztik Tafallara joateko edo Tafallatik hona itzultzeko, zein herritatik joan zen aita? ez?

- Eztaki(t) nik, klaro!

- Joan eta ekarri eta egin zuela, hori bai baina besterik ez...

- Klaro, bezteik ez, bezteik ez.

- Eta zergatik erraten duzu 'mule' eta ez 'mandoa'? hembra zelako?

- Claro, la mula siempre es hembra, y el macho es macho...

- Orduan, euskaraz, erraten duzue...

- Mule! ta mandoa? bestzeai; ta biorra... ta zaldie... klaro, astoa.

3. Ezkabarteko San Juanak Anotzen

- **Erref:** EKB-003/001
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan egunean sortak egin eta bedeinkatu egiten ziren, gero etxean jartzeko. Bezperan sua egin eta aurreko urteko sorta erretzen zen. Suaren gainetik salto egin eta hauxe esaten zuten: "Sarna fuera, kaiku te ganbela pera, Nafarroko gari guzie kur itxera".</p>

4. Anoztarrak Aingiriturrira, "pikorrak" sendatzeko

- **Erref:** EKB-003/002
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:07:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Anotzibarrera bidean Aingiriturri esaten zioten iturria zegoen eta hara joaten ziren bi herrietakoak San Juan bezperan. Hango ura hartzen zen, "pikorrak" sendatzeko.</p>

5. Anotz: Urteberriko Txiribiri delakoa Iruñetik aski hurbil

- **Erref:** EKB-003/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:11. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Urteberri egunean etxerik etxe eskean joaten ziren. Orduan kantatzen zuten koplak kantatzen du: "Txiribiri, txajoneko, Urteberri eguneko...".</p>

6. Anotz: Errege-egunaren bezperako "cencerrada"

- **Erref:** EKB-003/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:09:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Errege egunaren bezperan zintzarriak jotzeko ohitura.</p>

7. Anotz: Eguberriko enborraren ohitura, Errege-egunean?

- **Erref:** EKB-003/005
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:09:48. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Eguberrietako ohitura: etxekoentzat enbor bana ipintzen zen sutan eta, gero, baita Jainkoarentzat eta Ama Birjinarentzat ere.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com